



MUSIKA

# Musika Hamabostaldiko nire gomendioak



DONOSTIAKO MUSIKA HAMABOSTALDIA  
INGO IBANEZ

Musika Hamabostaldiko bi ekitaldi, 2023koak.

## MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

**E**gun gutxi barru, abuztuaren 1ean, Musika Hamabostaldiaren edizio berria hasiko da, musika klasikoa-ren zaleentzako udako hitzordu faborittoa. Proposamen ederrez betetako hilabetea izango da. Gainera, Donostian izango diren ziklo klasikoetatik kanpo, oso kontzertu onak izango ditugu leku berezietan: Arantzazu, Chillida-Leku, Orio, Urrestilla, Leire, Senpere... Eskaintza benetan tentagarria da. Pena ematen du hilabete horretan oporretan joateak.

Programa aspalditik ezagutzen da, beraz, niri dagokidana da, urtero egiten dudan bezala, zita batzuk gomendatzea.

Nahiz eta batzuetan esan ohi den Kursaal Zikloan ematen diren kontzertu handiek beste leku batzuetan aldi berean eskaintzen diren harribitxi batzuk ahaztarazten dizkigutela, egia esan, aurten urrezko uneak izango ditugu gure auditorioan.

Europako lau orkestra bikain izango ditugu, Euskadiko Orkestraren emaldiaz gain, noski. Zaila egiten zait kontzertu horietako batzuk aukera-

tzea, baina hala egingo dut: Orchestre Philharmonique du Luxembourg-en inaugurazio-kontzertuak, Mahlerren 5. sinfoniarekin –zoragarria errepertorio osoaren artean–, ikusmin handia sortuko du. Abuztuaren 18an, Budapest Festival Orchestra izango dugu Donostiako Orfeoiaekin, Mozarten 38. sinfonia eta Requiema eskaintzeko, Ivan Fischer fundatzaile eta zuzendari titularraren batutapean. Munduko hamar orkestra onenen artean dagoen taldeaz gozatze-ko aukera izateaz gain, programa benetan erakargarria da.

Ez galdu Orchestre Philharmonique de Radio France taldearen kontzertua. Orkestra senda eta soinu bikainekoa da, eta programa zoragarria eskaintzeaz gain –Debussy, Lalo, Ravel, Stravinsky–, Sol Gabetta biolontxelo bakarlariaren emanaldiaz gozatuko dugu. Lehen mailako bakarlari argentinarra da, eta zirrara eragiten du mundu osoan, bere perfekzio teknikoagatik eta, batez ere, bere nortasun musikal apartekoagatik.

Zikloa aldatuta, Victoria Eugenia An-

tzokian, abuztuaren 19an, piano-jotzailer gazte bat (17 urte) entzun ahal izango dugu. Esaten denez, ez da eta ez da izan ‘neska prodijioa’. Alexandra Dovgan ikusi gabe entzuten badugu, haren musika heldua nabarituko dugu, musikaltasun sakonez betea eta ibilbide luzeko pianista handi bati dagokiona.

Eta dena ondo egiten du. Bachetik Scriabinera, Beethoven, Schumann edo Rachmaninovetik pasata, Dovganek oso programa exigentea eta zoragarria eskainiko digu. Adibidez, Alexander Scriabinen 2. sonataren interpretazioa entzuteko irrikan nago.

Ez nuke inola ere galduko Abraham Cupeirok abuztuaren 29an Arantzazun eskainiko duen proposamena. Antzina-ko instrumentuak orkestra moderno batekin uztartzeak diskurtso harrigarria sortzen du. Musikari klasikoekin batera, Oreka TX, Eñaut Elorrieta eta Agus Barandiaranen *trikia* izango dira taula gainean, Bartok, Piazzolla, Cupeiro, Elorrieta bera eta Oreka TX interpretatzeko. Bonba bat. ●